

DIRU SARREREN ITURRIA

Lehenik eta behin, enpresa hasi aurretik, sozietate bat izango denez, sozio bakoitzak ekarpen bat egingo du gure zerbitzua emateko lanean hasi ahal izateko diru kopuru minimo bat izateko.

Horrez gain, gure enpresaren diru sarrera nagusiak gazte nahiz helduek hileroko ordainduko dituzten kuota izango da. Hala ere, merke aterako zaie, hileroko 70€ inguru ordaindu beharko baitituzte, pisu bat eta zaintzaile bat baino dezentez merkeago.

Azkenik, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzuak sozietateari laguntza bat ematen dionez, entitate publiko nahiz enpresa pribatuaren eskutik diru laguntzak lortzen saiatuko gara.

